

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEAK

Amaia Barredo Martin Lurraldearen, Klimaren aldeko Ekintzaren, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Arloko koordinatzaile nagusia kargutik kentzea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 26an, Amaia Barredo Martín andrea Lurraldearen, Klimaren aldeko Ekintzaren, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren arloko koordinatzaile nagusi izendatzea erabaki zuen, Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren araudi organikoak ezarritakoaren arabera, horrek arautzen dituelako, beste gai batzuen artean, izendapen erregimena, sailak eta funtzioak eta zuzendaritza organoen kargu-uztea. Horri dagokionez, haren 44. artikulua haxe ezartzen du:

“1. Tokiko Gobernu Batzarrak izendatu nahiz kargutik kenduko ditu koordinatzaile nagusiak eta zuzendari nagusiak nahiz antzeko organoak”

Eta 2. paragrafoan honela jarraitzen du:

“Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130.3. artikuluan xedatutakoaren arabera izendatu beharko dira”

Amaia Barredo Martin andrea Gasteizko Udaleko zinegotzi karguaz jabetu zen Udaltzarak 2019ko uztailaren 11n egindako osoko bilkuran; beraz, orain beharrezkoa da orain arte betetzen zuen zuzendaritza kargutik kentzea.

Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 44. artikulua Tokiko Gobernu Batzarrari aitortzen dio zuzendari nagusiak izendatu eta lanpostutik kentzeko eskumena. Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4.b) artikulua — Tokiko Gobernu Eraberritzeko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua — xedatutakoarekin bat etorritik, alkateari dagokio udal administrazioaren zuzendaritza, eta ondorioz, Gasteizko Udalaren alkateak honakoa proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki proposamena

Amaia Barredo Martin andrea Gasteizko Udaleko Lurraldearen, Klimaren aldeko Ekintzaren, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren arloko koordinatzaile nagusi kargutik kentzea, 2019ko uztailaren 10eko ondorioekin, Gasteizko Udaleko zinegotzi hautatua izan baita. Eskertu egiten zaizkio egindako zerbitzuak.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 19an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE